

**HOMOSEXUALITATEAREN
ETA LESBIANISMOAREN
GAINEKO AURREIRITZIA ASTIALDIAN
LANTZEKO KOADERNOA**

Erratu egin nintzen Lucerekin. Uste nuen nirekin hitz egin ondoren normala nintzela erabakiko zuela eta bakea emango zidala. Baina hasia nintzen normaltasunaz zerbait ikasten. Normaltasuna ez zen normala. Ezin zuen izan. Normaltasuna normala balitz, inor ez litzateke hartaz arduratuko. Mundua lasai egon liteke, normaltasunari bere kasa agertzen utzita. Baina jendeak zalantzak bazituen normaltasunaz, batez ere sendagileek, ez baitzeuden seguru behar bezala agertzen ote zen. Hortaz, zuzentzeko joera izaten zuten.

Jeffrey Eugenides *Middlesex*, 568 orria
Editorial Anagrama 2003

Data: 2004ko urria
Lege erregistroa
Egilea: Lala Mujika
Testuaren berrikusketa: Marta G. Rodrigo

Kontzeptua eta koordinazioa:



CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTRUA

ALDARTE Centro de Atención a Gays y Lesbianas
Gay eta Lesbianen Atenzio Zentrua

Calle Berastegi 5-5º Dptos. 8 y9
48001 Bilbao
Tlfno. 944237296
E-mail: aldarte@aldarte.org
www.aldarte.org

Erakunde laguntzailea:



Koadernoak diruz lagundu duten erakundeak:



AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	5
SARRERA.....	7
HOMOSEXUALITEAREN ETA LESBIANISMOAREN GAINEKO AURREIRITZIA. OINARRIZKO OHARRAK	9
HOMOSEXUALITATEREN ETA LESBIANISMOAREN GAINEKO AURREIRIT- ZIAK LANTZEKO GOGOAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK	11
JARDUERETARAKO IRADOKIZUNAK	14
1. DINAMIKA: HETEROSEXUALA AL ZARA?	15
FITXA: HETEROSEXUALA AL ZARA?.....	16
2. DINAMIKA : AURREIRITZIEN ZERRENDA	17
3. DINAMIKA: HAUTSI ARAUA.....	19
4. DINAMIKA: ZER DERITZEUZU HURRENGO BAIEZTAPENEI?.....	20
FITXA: ZER DERITZEUZU HURRENGO BAIEZTAPENEI?	21
5. DINAMIKA: ASMATU NOR DEN GAY ETA NOR HETEROSEXUALA.....	22
6. DINAMIKA: GALDEREN ONTZIA	24
7. DINAMIKA: LURPEKO GORDELEKUA.....	25
FITXA: LURPEKO GORDELEKUA.....	26
8. DINAMIKA: PERTSONEN ARTEKO PERTZEPZIO.....	27
PERTZEPZIO MATRIZEA.....	28
9. DINAMIKA 9: JULENEN KASUA	29
FITXA: JULENEN KASUA	30
10. DINAMIKA: ISPILU DESITXURATUA	31
GOGOAN HARTZEKO INFORMAZIOA	32

HITZAURREA

Astaldi Foroa Bizkaia, , Heziketa Astialdiaren alorrean diharduten Bizkaiko hainbat eragileren elkarlanerako gunea da Astaldi Foroa Bizkaia, eragileen proiektu pedagogiko eta ideologikoak desberdinak izan arren komunean baitituzte hainbat nortasun-elementu.

Foroaren helburua Bizkaiko heziketa astialdia garatzea da eta horretarako koordinazio eta solaskidetzaz, gogoeta bateratuaz, prestakuntza nahiz sentsibilizazioaz baliatuko da. Besteak beste, heziketa astialdirako elkarteak indartzen saiatuko da, eta halaber ekimenak bultzatuko ditu baloreetako hezkuntza eta eraldaketa soziala lantzeko astialditik abiatuta.

Astaldi Foroan uste dugu garrantzitsua dela aniztasun sexuala eta antzeko gaiak lantzea, eta horrexegatik, honen moduko materialak sortu nahi ditugu, gaiok landu ahal izateko gure taldeetako neska-mutilekin.

SARRERA

Koaderno honen abiapuntua eta oinarria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta ALDARTEK antolatutako 2003ko abenduan eta 2004ko apirillean burutu ziren “GAZTEAK TOLERANTZIA ETA SEXU DIBERTSITATEAREN ALDE” izeneko hezkuntza tailerrek dira, eta astialdian gazte eta nerabeekin lanean ari zireten hezitzaile eta begira-leei zuzendurik dago.

Lan material honen xedea hau da: orientazio sexualagatiko bazterketarik ez egotea gazteen artean, hots, zuen taldeetan pertsona guztiak diren bezala onartuak izan ditzatela eta gay edo lesbiana sentitzen diren neska-mutilek beren izaera sendotu eta askatasunez jardun dezatela lortzea.

Horren harian, hiru ataletan banatu dugu koadernoak:

Para conseguir tal fin hemos dividido el cuaderno en tres apartados:

- Gai eta lesbianen kontra dauden aurreiritzien gaineko gogoeta labur bat: aurreiritziak zer diren, zer nolako eragina duten horien jomuga diren pertsonengan, etab.
- Gai hauek lantzerakoan prestakuntza tailerretan sortu ziren zenbait zalantza eta liskarren berri ematea, hala nola horiei ekiteko aholku eta orientazio batzuk.
- Lanerako hamar dinamika, zuen taldeetan landu ditzazuen.

Koaderno hau zuentzat erabilgarria izatea da gure nahia, eta zuen lanarekin eta ekarpenekin, osotu eta hobetu ahal izango dugu.

Koaderno hau apailatu dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu prestakuntza tailerretan parte hartu duzuen guztioi, zuen ekarpenik ezean, hankamotz geldituko baitzen lan material hau.

Eta esker bereziak eman nahi dizkiegu Jessicari, Martari, Rakeli, Aitorri, Mertxeri, Monicari, Aneri, Mariari, Itxasori eta Rakeli, lan dinamikak prestatzeko agertu duten gogoia eta eramanagatik.

HOMOSEXUALITEAREN ETA LESBIANISMOAREN GAINEKO AURREIRITZIA. OINARRIZKO OHARRAK

Zenbait kontu orokor

Esan genezake ezezagunaren aurrean sentitzen dugun beldur kontrolaezin hori dela aurreiritzia. Eta beldur horrek eraginik, desberdinak zaizkigun horiekiko kontrako jarrerak, jokamolde iraingarriak, baztergarriak edo besterik gabe erasogarriak agertzen ditugu.

Aurreiritziak zer diren, bada giza talde jakin bateko partaide izateagatik zenbait pertsonetz, horiek ezagutu ere baino lehen, ditugun ideia faltsuak. Ideia horiek, alabaina, ez dira gero bat etorriko gure aurreiritzien jomuga diren pertsona horien benetako nortasunarekin.

Aurreiritzi horiek, askotan, irain, txantxa, txiste eta trufen bidez adierazten dira; eta kasurik larrienetan, lege-bazterketaren edo zuzeneko erasoen bitartez.

Giza talde ugari izaten dira aurreiritzien jomuga: bai talde etnikoak, erlijiosoak nahiz orientazio sexual jakin batekoak. Eta horietakoak ditugu, besteak beste, gay eta lesbianak. Esaterako, oso zabalduak daude oraindik ere “*Gayak nesken keinuak dituzte eta promiskuoa dira*” edo “*lesbianek gorroto diete gizonei, oso bitxiak eta zaputzak dira*” tankerako iritziak, homosexualitateaz eta lesbianismoaz ari garelarik.

Aurreiritziak txiki-txikitatik gureganatzen ditugu, eta denborarekin, heldutasunera heltzen garelarik, guztiz natural eta normalak iruditzen zaizkigu. Hori dela eta, pentasamendu ia berezko, irrazional eta automatiko horiek eraginda, “maritxu” bezalako hitzak botatzen ditugu boteprontoan, gehiegi pentsatu gabe, edo harritu egiten gara emakume lesbiana bat ikusten dugunean.

Zaila izaten da gay eta lesbianen gaineko aurreiritzi horiek agerian jartzea, hain zuzen ere, ustez erabat naturalak direlako. Izan ere, konturatu ere ez gara egiten nola gureganatzen ditugun aurreiritzi horiek gizarteratzean, eta horrexegatik, sekula ez dugu sentitzen uste eta iritzi horiek justifikatu edo azaltzeko beharra. Jende asko erabat sinestuta dago gay eta lesbianeaz dituen ideiak egokiak direla, horrelakoak direla pertsona homosexualak, eta ez zaie burutik ere pasatzen iritzi faltsuak izan daitezkeela.

Horrela bada, aurreiritziak *memoria hautakorra* izatera bultzatzen gaituzte eta, ondorioz, adibide bat jartzeagatik, ikusiko dudana lesbiana bakarra izango da nire ustez lesbianaren ezaugarriak diren horiek dituen (gizon itxurakoa, ile motza, lodikotea...), sekula ez dut ikusiko neska xarmanta, ama, garaia eta ederra den lesbianarik. *Memoria konstruktiboa* deitzen den fenomenoa ere gerta daiteke, hau da, errealitatea gora behera, geure aurreiritzia baieztatuko duten gertaerei, gorabeherari, aspektuei emango diegu lehentasuna gure memorian. Adibidez, ondo frogaturik egon arren gay eta lesbiana asko umeak hezteko gauza direla, nire aurreiritzia baldin bada ezin dutela umerik adoptatu, horren aldeko argudioak baino ez ditut bilduko.

Aurreiritzietako beste ezaugarri bat zera da, oso erraz zabaldu eta hedatzen direla gizartearen maila eta inguru guztietara. Denak kutsatzen ditu aurreiritziak: pobreak nahiz aberatsak, eskuin zein ezkerrekoak, baserri nahiz kalekoak, gazteak eta zaharrak. Hor ikusiko ditugu beti literaturan eta zineman, publizitatean nahiz legetan, hezkuntza sisteman...

Badago gure gizartean oso zabaldurik dagoen aurreiritzi bat, indartsuenetako bat, eta hau da: kontrakoa frogatzen ez diguten artean, mundu guztia heterosexuala dela pentsatzen dugu. Ideia hori gureganatzen dugu jaiotzen garenean, eta ideia hori finkatzen dugu heziketa eta gizarteratze prozesuan.

Azken apunte batzuk

Homofobiaz hitz egingo dugu aurreiritzia beldur irrazional, nazka neurrigabe, mugarik gabeko gorroto bilakatzen denean. Eta azaldu behar da homosexualitatearen kontrako fobia horren baitan badagoela nahasmen psikologikoa bai eta intolerantzia ideologikoa.

Nolanahi ere, bereizi egin behar dira homosexualitatearen gaineko aurreiritziak eta homofobia. *Homosexualen gaineko aurreiritziak dituzten pertsona guztiak ez dira homofobo bilakatzen.* Horietako batzuek aurreiritzia gainditzea lortzen dute, beste batzuek ideia horri eusten diote, eta beste gutxi batzuk homofobo bilakatzen dira eta arazo larriak sortzen dizkiete gay eta lesbianeiei, eta oro har, gizarte osoari.

Ez da zaila irudikatzea zer nolako eragina izan dezaken aurreiritzi batek horren jomuga den pertsonarengan. Gure inguruko gizarteak guri buruz sortzen dituen definizioek badute gudan eraginik, eta neurri batean, definizio horien arabera bizitzen dugu gure sexualitatea, aurreiritziok geureganatzen ditugularik. Hortaz, ez da harritzekoa gay edo lesbiana den pertsona horrek berak sinestea “*anormala*” edo “*berezia*” dela.

Baten bat gay edo lesbiana dela sentitzen hasten denean, isiltzeko eta ezkutatzeko joera izaten du hasieran. Izan ere, ibilbide arazotsua izan daiteke norberari buruzko ikuspegi estigmatizatzaile bati aurre egitea, gainditu beharreko oztopo ugari dituen bidea. Era askotako arazoak sor daitezke: nortasunekoak (zer naiz ni, bada?), depresioa edo autoestima-galerak, nora jo edo antzeko pertsonak nola ezagutu ez jakiteak sortzen dituen arazoak, ukazioak, onartzeko zailtasunak, bakardade arazoak, amildegiaren ertzean bakar-bakarrik sentitzea, norik bere burua kolokan jartzea... Gay eta lesbianeiek, gehienetan, gainditu egiten dituzte oztopo horiek guztiak, hori bai, inguruko jendeak lagunduta.

Astaldiko hezitzaileak garen heinean, sexualitatearen aniztasuna onartzea eta elkarrenganako begirunea lortzea geure erronka ere bada. Alabaina, seguru egon zaitezte: aurreiritziak ikasi egiten badira, ezikasi ere egin daitezke. Aurreiritzirik gabe jokutzen ikas daiteke, eta posiblea da gay eta lesbianeiei buruzko iritzi eta ikuspuntu desitxuratuak baztertzen irakastea.

HOMOSEXUALITATEREN ETA LESBIANISMOAREN GAINEN AURREIRITZIAK LANTZEKO GOGOAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Atal honetan zenbait beldur eta kezken berri eman nahi dizuegu, hain zuzen ere 2003-2004 ikasturtean burututako Gazteak tolerantzia eta sexu dibertsitatearen alde izeneko tailerretan homosexualitatea eta aurreiritziak gaia astialdiko hezitzaileekin lantzerakoan sortu zirenak.

Pentsatzen dugunez agian, zuen taldeetako neska-mutilekin gaia lantzerakoan, antzerako zalantzak agertuko zaizkizuela, balizko gatazka eta liskarrak leuntzen lagun dezaketen zenbait ohar eta iradokizun azalduko ditugu.

ZALANTZAK ETA LISKARRAK

- Taldeko partaideren bat edo begiralea bera gay edo lesbiana gisa sailkatzea.
- Markatu behar al dira desberdintasunak? Beharrezkoa al da sexualitateari buruzko tailer batean heterosexualez, bisexualez eta homosexualenez hitz egitea?
- Aurreiritzia lantzen ari garelarik, zertaz ari gara, sexualitateaz ala giza eskubideez?
- Zein adinetan komeni da gai hauez hitz egiten hastea?
- Eta gurasoekin arazorik sortzen bada?
- Norberaren aurreiritziak ez transmititu.
- Neska-mutilengan sentimenduak sortarazi eta nola bideratu ez jakitea.
- Zenbait galderari nola erantzun ez jakitea.
- Zein punturaino “zuzena/gordina” izan gai hauekin.
- Nik ez dakidan arrazoiren batengatik neska-mutikoei nire azalpenak entzun nahi ez izatea.

KONTUAN HARTU BEHARREKO HAINBAT ALDERDI ETA IRADOKIZUN

Talde batean honelako gaiak azaltzerakoan kontuan hartu beharko dugu gerta daitekeela pertsonaren bat halako kategoria batean sailkatzea eta haren kontrako txantxa eta irainak egotea. Gertatu gerta daitekeenez, horren gainean gogoeta egin beharko dugu dinamikekin hasi aurretik eta moduak bilatu jazo ez dadin. Hala ere, jo dezagun txarrenera, gertatu egiten da eta ohiko burlak egiten dizkiete ume batzuek besteei. Egoera horri aurre egin ahal izateko, interesgarria izan daiteke ager daitezkeen balizko aktore guztiak bereizi eta aztertzea: trufak eta irainak pairatzen dituenak, irainak eta burlak egiten dituztenak eta hori dena ikusi eta neurri batean onartu egiten dutenak. Denek beharko dute laguntza eta orientazioa.

Izan ere, batzuetan zaila gertatzen zaigu ulertzea, hezitzaileak garen aldetik, inori trufa eta irain egiten diotenen ere laguntza behar dutela, biktimek bezalaxe. Gure ustez, ez ditugu ume horiek erremediorik gabeko homofoboak bailiran tratatu behar, ez bada euren bizitza laburrean gay eta lesbianak elementu berezi eta negatibotzat jotzen dituzten informazioak besterik jaso ez dituzten pertsonak bezala; hau da, horren ondorioz aurreiritziz jokatzeko beste irtenbiderik ez dutenak. Ume horiek ulerkortasuna eta adeitasuna beharko dute; alabaina, horrek ez du esan nahi euren jarrera eta jokamoldeak toleratu behar ditugunik. Lan berezia egin beharko da ume-okin kontura daitezen haiek erabiltzen dutena ez dela ikaskide eta lagunak tratatzeko modu egokia.

Ondo legoke oso zabaldua dagoen ideia bat baztertzea, alegia, *denok heterosexualak gareneko ideia*. Beste hitzetan esanda, aldeztu aurretik eta kontrakoa frogatzen diguten arte, mundu guztia heterosexuala dela sinestu eta horren arabera jokatzeko gure gisa harremanetan. Hori dela eta, ariketa ona iruditu zaigu gu hezitzaileok geure burua behartzea pentsatzera aurrean dugun pertsona horrek ez duela zertan, halabeharrez, heterosexuala izan, eta horren arabera jokatu. Esaterako, neska baten aurrean bagaude, egin daitekeen galdera bakarria ez da ea hango mutil hura gustatzen zaion; ondoko neska gustukoa duen ala ez ere galde dezaikegu.

Aurreiritziez hitz egiten dugularik, sexualitateaz ere ari gara; eta bada sexualitatearen alor garrantzitsu bat gizarte eta kulturarekin lotutakoa. Hain zuzen ere, esparru horretan kokatzen dira aurreiritziak. Sexualitate oso eta kalitatekoa izateak esan nahi du, besteak beste, norberaren orientazio sexuala oztoporik gabe garatzeko aukera izatea.

Gutziz normala da adinari buruzko kezka izatea, hots, *zein adinetik aurrera has naiteke umeekin gai hauei buruz hitz egiten?* Erantzun modura, bi lerro nagusi: umeak galdetu edo interesa agertzen duenean eman beharko dizkiogu argibideak, edo gay eta lesbianeiei buruz jasotzen dituen informazioak egokiak ez direla ikusten dugunean.

Nolanahi ere, gure ustez, galdera garrantzitsuena ez da “zein adinetik aurrera?” ez bada “nola?”. Adinak gorabehera, badira kontuan hartu beharreko funtsezko puntu batzuk:

- *Pertsona bakoitzaren mugak eta berezitasunak errespetatu behar dira*, haren erritmoa eta jakinminera moldatu beharko dugu. Alabaina, batzuetan hezitzaileak berak planteatu ditzake hauei buruzko puntu batzuk. Gauza bat da egoera ez behartzea eta beste bat gai hauek isiltasunera baztertzea.
- *Berotasuna eta hurbiltasuna*: erantzuteko jarrera da garrantzitsuena. Konturatu behar dira inongo galderak ez zaituela gogaitzen. Konfidantza bide bat sortu behar da gaiak hitz egiten ohitu daitezen eta ikus dezaten horretaz ere hitz egin daitekeela.
- *Entzuteko gaitasuna*: bakarrizketa baino hobea da elkarrizketa. Elkarrizketak berarekin dakar hitz egitea, baina batez ere, entzutea. Informazioa eman baino gehiago, pentsatzen lagundu beharko genuke.
- Beharrezkoa denean, *zuhurtziaz eta diskrezioz* joka ezazu, ume batzuek agian

arazoak izan baititzakete homosexualitatearekin loturiko zenbait prozesu pertsonal antzemateko

- *Ez itzazu misterio kutsuaz bildu* ematen dituzun azalpen edo argibidea.
- Elkarrizketak abiatu aurretik kontuan hartu behar dugu zer nolako pertsonak ditugun aurrean, eta hizkera haiek ulertzeko modukoa izango da. *Ez diegu galderei erantzun behar, ez bada galdera egiten dutenei*. Galdera beraren atzean pertsona desberdinak daude, hau da, errealitate eta esanahi desberdinak.

Erantzunik gabe, zer ihardetsi jakin gabe gelditzea izan ohi da heziketa jardueraren bat burutzen duenaren beldur nagusietako bat. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da zuek ez zaretela adituak, eta egiten dizkizueten galderak ez dira etengabeko azterketa bilakatu behar. Sexualitateaz ez da dena jakin behar, are gehiago, ezinezkoa da dena jakitea, ez dago erantzun biribilik. Hobe da esatea *ez dakit, baina bihar-ko enteratuko naiz, eta hobe zuk laguntzen badidazu*, eta ez itxurak egitea edo hanka sartzea informazio desegokia emanda. Komunikatzeko egiten dugun esfortzu horretan, ez dakigula esatea, zalantzaka hastea, lotsagorritzea... ez da hain larria.

Esan berri duguna egia bada ere, etengabeko prestakuntza beti izango da lagungarria, eta hezitzaileak zareten neurrian horretan saiatu behar duzue, bereziki gai jakinen batean hutsune nabarmenak dituzuela dakizuen kasuetan. Horrela bada, komenigarria da sexualitatearekin eta orientazio aniztasunarekin loturik dauden gaiak buruzko formakuntza eta prestakuntza lortzea, modu horretan seguruago sentituko baitzaretze, zuen buruarekiko konfidantza handiagoaz jardungo duzue gaiok lantzerakotan. Erabiliko dituzuen lan dinamikak zuen prestakuntza mailarako egokiak izan behar dute, hori baita modu bakarra kudeatzen jakingo ez duzuen prozesurik ez abiarazteko.

Askotan planteatzen den beste gaietako bat gurasoena da. Eta gurasoak oldartzen bazaizkigu gai hauek erabiltzen ditugulako haien seme-alabekin? Egoera horren aurrean hainbat galdera argitu behar ditugu, hezitzaileek gainditu beharreko beldur hori ondo bideratu ahal izateko. Umeekin homosexualitateaz eta lesbianismoaz hitz egiten dugularik, izugarrikeria al da?; gurasoek ager ditzaketen aurreiritzizko kexak gidatu behar al dituzte gure planteamendu pedagogikoak?; kexak gorabehera, ez al da interesgarriagoa neska-mutilei sexualitatearen eredu anitz eta begirunezkoa eskaintzea?

Ausardiaz jokatzeko proposamena egiten nahi dizugu guk. Ausart zaitetz zure taldean gai hauek ateratzen. Erabili itzazu beste gaiak erabiltzen dituzun bezala, hau da, lasaitasunez eta arrazoiak emanez. Pentsatzen baduzu gurasoren batek arazoak planteatzen ditzaizkeela, aldeztu aurretik azaldu konbentzimenduz zer egingo duzun; eta beharrezkoa bada, landu gai gurasoekin, homosexualitateak eta lesbianismoak sortzen dien beldurra gaindi dezaten.

Hitz gutxitan esanda, saia zaitetz ahal bezainbat zure astialdiko taldeko kideek gai hauek landu ditzaten.

JARDUERETARAKO IRADOKIZUNAK

Jarraian azaltzen diren hamar dinamikak *Gazteak tolerantzia eta sexu dibertsitatearen alde* izeneko hezkuntza tailerretan aurkeztu eta burutu dira.

Tailer horietan parte hartu zutenek talde-dinamiketako liburuetan agertzen diren zenbait ariketa egokitu zituzten gay eta lesbianen gaineko aurreiritziak lantzeko, eta atal honetan aurkitu ahal izango dituzue horietako batzuk.

Jarduera guztien helburu nagusia gay eta lesbianen gaineko aurreiritziak lantzea da, gogoeta eta talde-eztabaidaren bitartez horiek gainditzea lortzeko. Horrez gain, helburu zehatzagoak ezartzen dira jarduera bakoitzerako.

Ariketa hauez gain badira gai hauetarako erabili daitezkeen bestelako dinamikak. Aipatu gabe utzi dugu, esaterako, filmeak edo dokumentalak ikusi eta ondoren elkar-rizketa egitea; edo aurreiritziok lantzen hasten zaretenean dudarik gabe bururatu-ko zaizkizun gainerako guztiak. Kontuan hartu, halaber, ariketa berriak asmatzeaz gain normalean erabiltzen dituzuen eta ezagunak zaizkizuenak egokitu ahal dituzue-la aurreiritzien gairako.

Gogoan izan, nolana ere, ariketa mota -uste izaten dugunaren kontra- ez dela beti garrantzitsuena izaten. Funtsezkoagoa da xedeak argi izatea, zehatz jakitea zer azaldu nahi dugun eta norantz bideratu nahi ditugun gogoetak. Hori guztia, gainera, irudimenez, sormena erabiliz eta graziaz egiten baduzue, neska-mutikoen kutunak izango zarete.

I. DINAMIKA:



HETEROSEXUALA AL ZARA?

Helburua: Gay eta lesbiana askok bizi duten errealitatea hurbilgotik sentiaraztea, etengabe jartzen baita koloka haien izateko, jokatzeko eta harremanak ezartzeko modua.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: ordu 1

Adina: 14 urtetik gora

Materialak: boligrafoa eta honekin batera doan galdetegia.

Nola burutu: Galdetegia banatuko dugu eta nor bere aldetik beteko du. Erantzuteko denbora nahikoa emango diegu. Ondoren, talde gogoeta egingo dugu.

Egin beharreko hausnarketak:

Galdetegi honek, izatez, ez du inkesta izan nahi. Ez da beharrezkoa erantzunak zenbatzea edo horiei buruzko iruzkinak egitea. Benetako xedea gazteak ustekabeen harrapatzea da, haien inguruko munduan, askotan, segurtzat jotzen baita dena zuria dela, bestelako kolore edo ñabarduretarako aukerarik eskaini gabe.

Galdetegi honen bitartez bestelako ikuspuntu batean kokaraziko ditugu une batez, non “normala” eta bakarra zena, apartekotzat, berezitatat joko baita.

Galdetegiari erantzutean nola sentitu diren eta galderetan zerk eman dien atentzioa azal dezaten utziko diegu.

Eztabaidan saiatuko gara aztertzen zeri deritzon “normala” eta “naturala” eta zer esan nahi duten hitz horiek sexualitateari buruz ari garenean, konturatu daitezten euren darabilten homosexualitatearen ikuspegia –zerbait anormala bailitzan- dela euren ikaskide eta lagun batzuek, askotan isil-gordean, pairatu behar dutena.

FITXA

HETEROSEXUALA AL ZARA? Mesedez, erantzun galdetegi honi.
ANONIMATUA GUZTIZ BERMATURIK DAGO. INORK EZ DU HONEN
BERRIRIK IZANGO

- 1 - Noiz deskubritu zenuen heterosexuala zinela?
 - Betidanik jakin dut
 - Orain denbora gutxi
 - Oraindik ez du horrelakorik planteatu
- 2 - Asko kosta al zitzaizun onartzea?
 - Bai, oraindik ere kosta zait
 - Apur bat
 - Egia esan, oso gustura nago
- 3 - Antzeko kasurik ezagutzen duzu?
 - Bai
 - Ez
 - Ez dakit. Jendeak ez du horrelako kontuez hitz egiten.
- 4 - Gurasoei kontatzeko asmorik baduzu?
 - Baietz uste dut, eta ulertuko dutelakoan nago, haietako bat ere heterosexuala delako
 - Ez, sekula ez nieke horrelako gauza bat kontatuko
 - Uste dut asko kostatuko litzaiekeela onartzea. Oso heziketa tradizionala izan dute
 - Esana diet jada
- 5 - Eta zure lagunei?
 - Baietz uste dut, eta ulertuko dutelakoan nago, haietako batzuk ere heterosexualak direlako
 - Ez, sekula ez nieke horrelako gauza bat kontatuko
 - Uste dut asko kostatuko litzaiekeela onartzea
 - Esana diet jada
- 6 - Zure burua bazterturik sentitu duzu inoiz heterosexuala izateagatik?
 - Batzuetan
 - Bai, etengabe
 - Ez
 - Ez, heterosexuala naizela ezkututzen dudalako
- 7 - Zenbatetan joan zara psikologoarengana heterosexuala zarela onartzen lagun diezazun ala izateari uzteko?
 - Askotan
 - Tratamenduan nago
 - Ez, "arazo" horregatik ez naiz joan
- 8 - Zer sentitzen duzu "heterosexual alu hori" esaldia, edo horri buruzko etengabeko txantxa eta txistekak entzuten dituzunean?
 - Min ematen dit eta momentu horretan desagertu nahiko nuke
 - Niri esaten ez didaten artean
 - Izan ere, horrelakoak gara heterosexualak
 - Neure burua defendatzen dut, bai eta neure modukoak direnak

2. DINAMIKA

AURREIRITZIEN ZERRENDA

Helburua: Gay eta lesbianen gainean erabiltzen ditugun aurreiritziez ohartzea eta horiek aztertzea: zer esan nahi duten ikusi eta ideia horien objektu diren pertsonengan izan dezaketen eraginaz konturatu.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: ordu 1

Adina: 8 urtetik aurrera

Materialak: Hitzak idazteko arbela edo antzerakoa

Nola burutu: Gay eta lesbianak izendatzeko ezagutzen dituzten hitzak ahots ozenez esateko eskatuko diegu neska-mutilei. Hitzak esan ahala, arbelean idatziko ditu begiraleak, denek ondo ikusteko.

Egin beharreko hausnarketak:

Ariketa honekin neska-mutilak ustekabeen harrapatuko ditugu, *marikoia* edo *marimutil* hitzak esaten dituztelako errieta egin orde, itxuraz bultzatu egingen baititugu gay eta lesbianeiei deitzeko ezagutzen dituzten irain guztiak esan ditzaten. Baina kontua ez da hitzak esatea eta kito. Behin bururatzen zaizkien hitz guztien zerrenda eginda, ariketaren benetako funtsari helduko diogu, alegia: jasotako hitzak banan-banan aztertu eta horren gainean gogoeta egitea.

Ondorengo eskema segituko dugu hitz bakoitzarekin: Zuen ustez zein da hitz horren jatorri etimologikoa? Zer historia du hitz horrek? Zein da esanahia? Aldeko zentzua ala kontrakoa du? Nolako eragina izan dezake hitz horrek iraintzen dugun pertsonarengan? Bestelako hitzak edo sinonimoak badaude pertsona horiek modu aldekoago edo positiboagoan izendatzeko?

Baliteke hasieran neska mutilak uzkur agertzea eta hori gainditzeko zeuek has zaitezke zerrendarako hitzak esaten.

Oso garrantzitsua da ariketaren helburua argi edukitzea, hau da, gazteek begirunezko izendapen ez iraingarriak ikastea; beraz, behar bezain bestetan errepikatuko ditugu.

Ariketa burutzeko laguntza:

Marikita, marikoi, marisa, marixu: Maria izenetik eratorriak dira, izen hori baita emakume izen nagusia.

Andragzon, emagizon: Gizon hitzari aurretik emetasun zentzua duen hitza eransten zaio, aurreko adibideen ildo beretik.

Bollera: aluari egiten dio erreferentzia, antza, ilerik gabeko aluek buelta emandako bolloaren itxura dute.

Tortillera: Adierazpen matxisten artean matxistenetakoa. Horren atzean dagoen ideia zera da, bi emakumeek bakarrik, sexu kontutan, arrautzak apurtu beste ezer ezin dute egin. Eta zer egiten da arrautza apurtuekin?, bada tortilak.

Afeminado: Esan gabe doa “afeminatua” izatearena ez dela bakarrik homosexualen kontua. Heterosexual askok dauzkate halako adierazpen eta keinuak. Gainera, goxoa, amoltsua, ezta izatea ez da inondik inora zer txar bat.

Sodomita: Sodomatik eratorria. Sodoma Biblian agertzen den herria da, bizio eta gaiztakerien egoitza nagusia. Egun ez da askorik erabiltzen..

... Eta horrela segi daiteke zerrenda luzea eginez. Kasu batzuetan ezingo duzue asmatu nondik datorren hitza. Berdin dio. Inporta dena ez da taldean hitz horren gaineko gogoeta sakona egitea, ez bada bestelako esapide egokiagoak bilatzea, begirunezkoak.

3. DINAMIKA:



HAUTSI ARAUA

Helburua: Bikote heterosexualei eta homosexualei buruz normalean erabiltzen diren esaldiak aztertu eta noiz eta nola erabiltzen diren ikusi.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: ordu bete.

Adina: 16 urtetik aurrera

Materialak: Papera eta lapitza

Nola burutu : Bikote heterosexualei eta bikote homosexualei buruz gehien erabiltzen diren esaldiak, esamoldeak, etab. idazteko eskatuko diegu. Esaterako “harreman guztien oinarria sexua da”. Gero eskatuko diegu bereizteko zeintzuk erabili daitezkeen bikote heterosexualentzat eta zeintzuk bikote homosexualentzat.

Egin beharreko hausnarketak:

Harremanaren funtsari begiratzen badiogu (maitasuna, sexua, etab.), desberdintasunik badago bikote homosexual eta heterosexualen artean ? Oso ohikoa da pentsatzea gayen artean sexua baino ez dagoela; sexu asko eta maitasun gutxi.

Nolakoak dira bikote homosexualekin erabiltzen diren esamoldeak? Eta bikote heterosexualekin darabilzkigunak? Gerta daiteke esaldi positiboak bikote heterosexualei buruzkoak izatea eta negatiboak homosexualei buruzkoak.

Badakizu lege aldetik nola dagoen bikote homosexualen gaia? Ezkon daitezke? Umeak adoptatzerik badute?

Atera beharreko ondorioa hauze litzateke: maitasunari, sentimenduei, bikotea bizitzeko moduari, umeen hezitzeke moduari, etabarri dagokienez, ez dago alderik bikote homosexualen eta bikote heterosexualen artean.

4. DINAMIKA



ZER DERITZEUZU HURRENGO BAIEZTAPENEI?

Helburua: Gay eta lesbianeiei buruz ibiltzen ditugun estereotipoen gogoeta egitea, uste horiek ezeztatzea eta errealagoak, egokiagoak, aurreiritzi gabekoak diren beste batzuk bultzatzea.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: 45 minutu

Adina: 12 urtetik aurrera

Materialak: "Zer deritzezu ondorengo baieztapenei?" fitxaren fotokopiak

Nola burutu: Ume edo gazte bakoitzari fitxa bat emango diogu. Denbora jakin bat izango dute betetzeko eta gero erantzunak taldean azaldu eta aztertuko ditugu, beharrezko komentarioak eginez.

Egin beharreko hausnarketak:

Esaldi bakoitzarekin gogoeta hauek egin daitezke:

Zein punturaino sinesten dituzue baieztapen horiek? Den-denek sinesten duzue irakurri duzuen hori ala baten batek besterik esan lezake? Zein da errealitatea? Zergatik uste duzue egiazkoak direla baieztapenok? Kosta egiten zaizue sinestea esandako gauza horiek faltsuak direla? Zuen ustez, zer pentsatzen dute zuen ingurukoek, gurasoek, irakasleek, ikaskideek...?

FITXA

ZER DERITZEUZU HURRENGO BAIETAPENEI?

1 *HOMOSEXUALA, GAY, MARITXU, MARIKOIA: HITZ HORIEK GUZTIEK ESANAHI BERA DUTE.*

.....

.....

.....

2 *LESBIANA, TORTILLERA, BOLLERA: HITZ HORIEK GUZTIEK ESANAHI BERA DUTE.*

.....

.....

.....

3 *GIZONEZKO AFEMINATU GUZTIAK GAY DIRA*

.....

.....

.....

4 *GAY DIREN GUZTIEK EMAKUME IZAN NAHIKO LUKETE, ETA LESBIANEK GIZON.*

.....

.....

.....

5 *LESBIANEI EMAKUMEZKO GUZTIAK GUSTATZEN ZAIZKIE, HORTAZ, EMAKUMEA BAZARA, KONTUZ IBILI INGURUAN LESBIANAREN BAT BADUZU, BESTELA ESKUA SARTZEN HASIKO ZAIZU.*

.....

.....

.....

6 *GAY-EN BIKOTEETAN, BATEK EMAKUMEZKOARENA ETA BESTEAK GIZONEZKOARENA EGITEN DU.*

.....

.....

.....

7 LESBIANA GUZTIAK MARIMUTILAK DIRA ETA GAY GUZTIAK ANDRAGIZONAK.

.....
.....
.....

8 ZURE SEXU BEREKO BATENGANAKO SAMURTASUNA AGERTZEN BADUZU, HOMOSEXUALA ZARELA ESAN NAHI DU.


.....
.....
.....

9 HOMOSEXUAL BATZUK BIZIO HUTSEZ DIRA HOMOSEXUAL, BESTE BATZUK JAIOTZEZ DIRA HORRELAKOAK.

.....
.....
.....

10 LESBIANAK, GEHIENETAN, AUTOBUS GIDARI ETA POLIZIA IZATEN DIRA, ETA GAYAK DANTZARI EDO JOSTUNAK.

.....
.....
.....



5. DINAMIKA:



ASMATU NOR DEN GAY ETA NOR HETEROSEXUALA

Helburua: Aurreiritziek gure pertzepzioari nola eragiten dioten ikustea da dinamika honen helburu nagusia. Alegia, konturatzea nola besteen desioek orientazio jakin bat dutela aurreuposatzeak errealitatearen perzepzio desbideratua ekartzen digun.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: 45 minutu

Adina: 12 urtetik aurrera

Materialak: Bat ere ez

Nola burutu: Taldeko lau pertsona gelatik kanpora aterako dira. Kanpoan daudela azalduko diegu gelara berriro sartzean gai jakin batez (lehenago aukeratua) eztabaidatu beharko dutela taldearen aurrean. Gaia ez da sexualitatearekin loturik egongo eta ahal dela gai egunerokoa eta azalekoa izango da. Pertsona horiek eztabaida prestatzen duten bitartean besteei azalduko diegu gai jakin bati buruz eztabaidatuko dutela kanpoan diren lan pertsona horiek, eta bik homosexualen papera jokatuko dutela eta beste biek heterosexualena. Eztabaida burutuko duten lauren, jakina, ez dute azalpen horren berririk izango.

Egin beharreko hausnarketak:

Seguruen, azkenerako, denek “antzemango dituzte bi heterosexuala eta bi homosexual”. Horrek bidea emango digu errealitatea desitxurazten diguten hainbat estereotipo lantzeko.

Garrantzitsua da azpimarratzea guztiz alferrekoa eta zentzugabea dela pertsona baten orientazio sexuala “antzeman” nahi izatea bakar-bakarrik adierazteko moduari erreparatuz, berdin hitz egiteko modua nola keinuak.

Azpimarratu egin behar da ez heterosexualek ez homosexualek ez dutela orientazio sexualaren araberako jokabide jakin eta berezirik. Pertsonak oso anitzak dira, eta jokamolde eta adierazpide ugariak ditugu, orientazio sexuala gorabehera.

Jokamolde eta adierazmodu berdin-berdina duten bi pertsonen orientazio sexual desberdina izan dezakete. Gay izatea ez da bekokian grabaturik dagoen zerbait, “ez da igartzen”, jende askok oraindik kontrakoa uste badu ere. Guztiz zentzugabekoa da taldeko homosexuala zein den “asmatzen” ibiltzea; askotan gainera, gaizki ustez eta morbo hutsez egiten da. Kontu honetan askoz hobea da zuzenean eta argi galdetzea, elkarrizketa hurbila eta begirunezkoa sortuz.

6. DINAMIKA:



GALDEREN ONTZIA

Helburua: Neska-mutilek informazio gehiago lortzea gay eta lesbianeiei buruz; horretarako galdera anonimoak egingo dituzte homosexualitateaz eta lesbianismoaz.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: 60-90 minutu

Adina: 12 urtetik aurrera

Materialak: Papera, boligrafoa, postontziarena egiteko kutxa bat

Nola burutu: Neska-mutilei jakinaraziko diegu bizpahiru egunetan postontzia eskura izango dutela gay edo lesbiana bati egingo lizkioketen galderak bertan sar ditzaten. Galdera horiek sexuarekin loturikoak, norberaren bizipenei buruzkoak (nola esan gurasoei...), edo gazteek nahi dutenari buruzkoak izan daitezke.

Galderak postontziak sartzeko epea amaiturik, horiei guztiei erantzuna ematen saiatuko gara taldekide guztiekin batera egindako bilera batean. Galderak kartoitxotara pasa eta taldekideen artean banatuko ditugu, arreta jarriz inork ez dezan hartu berak egindako galderarik.

OHARRA: Gay eta lesbiana baten laguntza beharko dugu galderetako batzuei erantzuteko.

Egin beharreko hausnarketak:

Lagunak gertatu zaizue gay eta lesbianeiei buruz zerbait ikasteko, lehena-go ez zenekiten zerbait? Homosexualitateaz eta lesbianismoaz zenuen balorazioa aldatu egin da? Zertan?

7. DINAMIKA:



LURPEKO GORDELEKUA

Helburua: Gutako bakoitzak homosexualitateaz eta lesbianismoaz agertzen dituen joerak aztertzea.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: 45 minutu

Adina: 14 urtetik aurrera

Materialak: Gordelekuko fitxa

Nola burutu: Gordelekuko fitxa banatuko zaie neska-mutilei eta nork bere aukerak egin beharko ditu, zergatiak azalduz. Denboralditxo bat emango diegu pentsatzeko eta gero talde eztabaida egingo da. Hasteko, bakoitzak bere hautuak eta zergatiak azalduko ditu. Ondoren talde gogoeta egingo dugu.

Eztabaidarako gida: Nola sentitu zarete ariketa egitean? Zer irizten diezue egin dituzuen hautaketei? Ariketa honek badu loturarik bizitza errealarekin? Inor baztertu al dugu inoiz, gay edo lesbiana delako? Guk horrelakorik egiten ez badugu, nola jokutzen dute gure ingurukoek? Ez zaizue iruditzen gay eta lesbianen gaineko gure aurreiritzien ondorioz haiengandik apartatu egiten garela eta gure lagun taldeetatik baztertzen ditugula?

FITXA

LURPEKO GORDELEKUA

Pentsa ezazue zuen herria bonbardatu egingo dutela. Badatorkizue pertsona bat eta esaten dizue erabaki bat hartu behar duzuela berehala: lurpeko gordeleku bat dago, baina sei pertsona baino ezin daitezke sartu (zeu barne). Hara sartu nahian ordea, hamaika pertsona daude. Hamaika horien ezaugarriak dituzu ondoren eta haien artean bost aukeratu behar dituzu, zurekin batera gordelekura joateko.

- Bibolin jole bat, 65 urtekoa, gizona, homosexuala.
- Abokatu bat, 25 urtekoa, gizonezkoa.
- Abokatu horren emaztea, 24 urtekoa; haurdun dago. Gordelekuan edo gordelekutik kanpo, abokatuak eta emazteak elkarrekin egon nahi dute.
- David Bisbal, egun horietan herrian kontzertua ematera etorria.
- Unibertsitate ikasle bat, neska; kastitate-botuak egin ditu.
- Gizonezko fisikari bat, 28 urtekoa; haren ustez gay eta lesbiana batzuk jaiotzez dira horrelakoak, beste batzuk bizioz.
- Emakume bat, 32 urtekoa, lesbiana eta bi seme-alaba dituena.
- Prostituta bat, lesbiana, 35 urtekoa.
- Apaiz bat, 75 urtekoa.
- Mutil bat, 16 urtekoa, futbolaria, arrebaren laguna den neska batekin maite-minduta dago.
- Kabaret batean diharduen transformista bat.

8. DINAMIKA:



PERTSONEN ARTEKO PERTZEPZIOA

Helburua: Aurreiritzien funtzionamendua ulertu. Beste pertsonak nola antzematen ditugun, hau da, pertsona horiez dugun pertzepzioa baldintzatzen duten faktoreak aztertuko ditugu, eta konturatuko gara ezen pertzepzio horiek, batez ere lehendabizikoek, eragin handia dutela pertsonen arteko harremanetan.

Jarduera burutzeko denbora, gutxi gora behera: Ordu t'erdi.

Adina: 12 urtetik aurrera

Materialak: Pertzepzio matrizeak: norberarena eta besteena

Nola burutu: Bosnaka bilduko ditugu neska-mutilak. Taldeko bakoitzak bere aldetik beteko du pertzepzio matrizea, gainerako lagunak animalia batekin, musika tresna batekin, janari batekin eta kolore batekin parekatuz.

Taldeko bakoitzak besteei jakinaraziko die zer nolako pertzepzioa duen haiez, azalpen labur bat emanez. Taldeko bakoitzak berari buruz besteek izan dituzten pertzepzioak notatuko ditu horretarako matrizean.

Egin beharreko hausnarketak:

Pertsonok inguratzen gaituen mundua antolatu izan ohi dugu, bereziki guri eta beste pertsona batzuekiko gure harremanei dagokiena. Horretarako hainbat kontzeptu eta kategoria erabiltzen ditugu; hala, gauzak beroak edo hotzak direla esango dugu, onak edo txarrak, errazak edo konplikatuak, gay da edo heterosexuala da, etab. Beste pertsona batzuei buruz, edo gu geuri buruz pentsatzen dugunean, hainbat kontzeptu eta kategoriaz baliaturik egiten dugu. Ezingo genuke ariketa hau egin besteei aplikatzen dizkiegun kategoriak erabili gabe.

Taldekideak ez dituzu asko ezagutzen, baina hala ere animalia batekin, musika tresna batekin etab. parekatu dituzu, nola egin dituzu lotura horiek? Esaterako, zerk bultzatu zaitu zure taldekidea halako animaliarekin lotzera? Nondik hasi zara?

Harritu zaitu nola sailkatu zaituzten gainerako taldekideek? Molestatu egin zaitu? Oso erratuta daude? Bat etorri dira zeure pertzepzioak eta gainerako taldekideenak? Pertzepzio justuak izan dira?

Ariketa egin ondoren, hobeto uler dezakezu zer senti dezaken gay batek "marikoi alaena" bezalako kontzeptu ezkorrak entzuten dituenean? Zer gerta liteke zure taldekideek elementu ezkorrekin lotu izan bazintuzte? Hobeto ulertzen duzu orain zenbateko mina eman dezakeen aurreiritzi batek?

PERTZEPZIO MATRIZEA

Norberaren pertzepzioak

TALDEKIDEA / KATEGORIA	nik honela ikusten dut nire burua	honela ikus- ten dut A	honela ikus- ten dut B	honela ikus- ten dut C	honela ikus- ten dut D
ANIMALIA					
MUSIKA TRESNA					
JAKIA					
KOLOREA					

Besteen pertzepzioak

TALDEKIDEA / KATEGORIA	A -k honela ikusten nau	B -k honela ikusten nau	C -k honela ikus- ten nau	D -k honela ikusten nau
ANIMALIA				
MUSIKA TRESNA				
JAKIA				
KOLOREA				

9. DINAMIKA:



JULENEN KASUA

Helburua: Aurreiritziak zer diren azaltzea eta haien ondorioak aztertzea

Jarduera burutzeko denbora: Ordu bete

Adina: 12 urtetik aurrera

Materialak: “Julenen kasua” fitxaren fotokopiak eta arbela edo antzerakoa.

Nola burutu: “Julenen kasua” fitxaren fotokopiak banatu eta nork bere erantzuna emateko eskatuko diegu. Arbelean koadroa egingo dugu emaitza guztiak jasotzeko.

	ERRUGABEA	ERRUDUNA
JULEN		
JULENEN AMA		
IRAKASLEA		
IKER		
NAIARA		

Kasua ahots goran irakurriko dugu eta neska edo mutil bakoitzak bere erantzuna ematen duenean arbelean jasoko dugu emaitza. Pertsonaia bakoitza errugabea edo erruduna zergatik iruditu zaien azaltzeko eskatuko diegu gazteei.

Eztabaida egingo dugu guztion artean, erabilitako argudioak elkartrukatzeko.

Eztabaidarako gida:

Zer argudio erabili dut Julenen egoeraren erruduna bilatzeko? Homosexualekiko aurreiritziak daude argudio horietan, ala ez? Zer iruditu zaizkizu pertsonaien jokaerak? Zertan duzu haien antzik, noraino? Julenek egiten duena, zure ustez, zein neurritan da gainerakoen jokamoldeen ondorio? Uste duzu Julenen kasua salbuespenekoa dela, gutxitan gertatzen dela? Julenek bezala, homosexuala izateagatik sofritu duen edo sofritzen duen inor ezagutzen duzu? Kontuan hartzen al dugu zer eragin izan dezakeen pertsona batengan bakarrik sentitzeak, gainerakoek ulertzen ez dutela? Zer egin zenezakeen Julenekin ospitaletik atera ondoren?

FITXA

JULENEN KASUA

Julenek 13 urte ditu eta institutuko bigarren urtea du. Antzerkia asko gustatzen zaio eta zuzendari izateko ikasi nahi du. Iker du laguna, institutuan oso izen on duen mutila. Julenek barre asko egiten du Ikerrekin eta Julenek zuzenduko duen gabonetako antzerki ikuskizunean parte hartuko du.

Julen Ikerrekin maitemindurik dago, baina Ikerrek ez daki ezer. Apirilean, Julenek aitortpena egitea erabakitzen du, posta elektronikoaren bitartez, eta honelako esaldiak dituen mezua bidaltzen dio Ikerri: bizitza osoa eman nahiko nuke zure ondoan, irribarre ezin goxoagoa duzu, zure begiei so egitea itsasoa ikustea bezalako da...

Ikerrek emaila irakurri ahala erantzuten dio Juleni argi esanez ez duela berriro ikusi nahi eta ez hurbiltzeko ez bere ondora ez bere lagunengana ingurura. Horrez gain perbertitu, anormal, munstro eta antzekoak deitu eta, amaitzeko, zera esaten dio, hobe zatekeela bera bezalakoak inon ere ez egotea.

Ikerren erantzunak harrিতuta eta lur jota uzten du Julen, eta laguntza eskatzea pentsatzen du. Amarengana jotzen du, baina oso lanpeturik dago eta gainera arreatxo txikiak arreta handia eskatzen dio; beraz, tontakerietarako denborarik ez duela besterik ez dio erantzuten. Ondoren irakasle batengana jotzen du, eta horrek institutuko psikologoarengana bidaltzen du zuzenean. Naiararekin saiatzen da, antzina izandako andregaiarekin, baina neskak diotso min handia eman ziola eta ez duela haren berririk batere izan nahi.

Gauzak horrela, Julenek bere buruaz beste egitea erabakitzen du, gelan entzertratuko da eta aspirina kaxa oso bat irentsiko du. Oharra: Julen garaiz aurkituko dute eta ezin izango du bere buruaz beste egin; ospitalean egun batzuk eman ondoren kalera aterako da, fisikoki ondo baina depresioak jota.

Historian agertu diren pertsonaietatik (Julen, Iker, Naiara, irakaslea, ama) zeini lepora dakioke Julenen suizidio-saioaren erantzukizuna? Zeinek du errurik gutxien?

10. DINAMIKA



ISPILU DESITXURATUA

Helburua: Bestearen tokian jartzea. Enpatia garatzea eta irain edo deskalifikazioek inorengan izan ditzaketen ondorioak ulertzea. Gay edo lesbiana batek senti dezakeena ulertzea, beren orientazio sexualari buruz burla eta trufa egiten dutenean.

Adina: 12 urtetik aurrera

Burutzeko behar den denbora: 30 minutu

Materialak: Bat ere ez

Nola burutu: Neska-mutilak talde bitan banatuko ditugu. Talde batekoei ekintzaren bat egiteko esango diegu (irakurri, dantza egin, kafea hartu, etab.), eta beste taldekoek gauza bera egin beharko dute baina muturrera eramanda, parodiatuz.

Talde bateko neska edo mutil bat eta beste taldeko beste bat jarriko ditugu, bikoteka, elkarri begira. Bakoitzak agindu diotena egingo du, hau da, batek zerbait egin eta besteak exajeratuz errepikatuko du, ispilu baten aurrean balego bezala.

Interesgarria litzateke normalean besteak iraindu eta zapaltzen dituztenak izatea ariketa honetako ekintza burutzen dutenak.

Eztabaidarako gida:

Ekintza burutu dutenek, zer sentitu dute besteek imitatu dituztenean? Burla egin dutenak, nola sentitu dira?, Nola ikusi dute bikotekidea? Barregarria da inori burla egitea.

Eztabaida homosexualitatearen alorrera eramango dugu eta galdetuko diegu ea orain hobeto ulertzen duten zer sentitzen duten homosexual eta lesbienek beren orientazio sexualaren gaineko parodia etengabeak ikustean. Horri dagokionez, galdetu egingo diegu ea haiek inoiz gay edo lesbianen gaineko burlak eta parodiak egin dituzten.

GOGOAN HARTZEKO INFORMAZIOA

Koaderno honetan ez dugu gaiari buruzko bibliografiarik aipatzen uste dugulako liburu eta testu ugari dagoela eskuragarri edozein liburudenda edo dokumentazio zentroan. Ez dugu uste ezein besteak baino hobea denik, eta denek ere, zein bere ikuspuntutik, lagungarri izango zaizkizu homosexualitatea/lesbianismoa eta horien gaineko aurreiritziak hobeto ulertzeko.

ALDARTEn badugu Dokumentazio Zentro eguneratua zuen eskura, sexualitateari, homosexualitateari eta lesbianismoari buruzko hainbat liburu, bideo, DVD, aldizkari, agiri eta abarrekin. Zuek nahi duzuenean jo dezakezue Zentro horretara, gaiok gazteekin lantzeko behar duzuen informazio guztiaren bila.

Era berean, koaderno honetako ariketak praktikara eramaterakoan zalantza edota arazorik sortzen bazaizue, orientazioa eta laguntza eskainiko dizuen pertsona taldea duzue zentroan.

EZ IZAN ZALANTZARIK. Aniztasunaren alde eta Diskriminazio sexualaren kontra jardun nahi duen orok atek zabalik aurkituko ditu beti **ALDARTE**n.

HEMEN AURKITUKO GAITUZU:

Berastegi KALEA 5-5.a Dpto. 8 -9

48001 Bilbo

Tfnoa. 944237296

E-mail: aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org